

# **EUSKAL GRAMATIKA OROTARIKOA**

*Pello Salaburu*

## **SARRERA**

Euskaltzainburuak hala eskaturik aurkeztu nahi dut zuen aitzinean Gramatika batzordeak aurrera atera nahi duen egitasmo berria. Proiektu hau, gure artean EGO gisa aipatzen duguna, aspalditik ibili da joan-etorrika, baina, arrazoi bat edo bestea dela eta (luze joko luke arrazoiak argitzea, eta aspergarri), ez dugu izan aukerarik patxadaz aztertzeko orain arte. Patxadaz eta, batez ere, aitzinat joko duelako itxaropenarekin, bai baitirudi behin eta berriz abian jarzeko izanik ere, baraturik gelditu dela.

Jakina den gisan, Gramatika batzordea, orain duen tankerarekin, 1980an sortu zuen Euskaltzaindiak. Lehenago, jakina, bestelako batzordeak ere aritu izan dira Euskaltzaindiaren barruan gramatikagintzan (aditz batuaren proposamena landu zuen batzordea, esate baterako); baina euskara batu gisa ezagutzen den hori osatzen duten gramatika arlo zehatzez gain (ortografia, izen eta aditz morfologia, etab.), beharrezko ikusi zuen Euskaltzaindiak bere gramatika erabatekoa eta osoa lantzen hastea. Horretarako izendatu zuen Gramatika batzordea.

Gramatika batzordeak bere hogeita bost urteko ibilbide luzean oso aldaketa gutxi izan ditu. Kideak, euskalki desberdinetakoak ditu: gipuzkoarrak, nafarrak, lapurtarrak, bizkaitarrak... Eta euskalki desberdinetakoak ez ezik euskara batua eta gainerako euskalkiak eta testuak ongi ezagutzen dituenak da batzorde-lanetan jardun duen eta diharduen jendea. Hasieran, buru, Piarres Lafitte izan zen. Ondoren, J. Haritschelhar, eta azkeneko urteotan, P. Altuna.

## **GRAMATIKA BATZORDEAREN LANAK**

Gramatika batzordeak era desberdineko lanak egin ditu urte hauetan zehar. Behin eta berriz etorri izan dira, eta orainik ere etortzen dira, handik eta hemendik irakasleek, batez ere, nahiz bestelako gizabanakoek, egiten dituzten galderak, dituzten zalantzak norbaitek argituko dizkielakoan. Galdera horiek Euskaltzaindiaren *Jagonet* zerbitzuaren bitartez etorri zaizkigu, eta han daude

bilduak. Horrek anitz lanordu eskatu izan dizkigu, eta bilera gehienetan gure ahaleginak egin ditugu galdera horien erantzun egokia eta zuzena, batere erraza ez dena, aurkitzen. Lan hau, euskararen egoera zein den kontuan izanik, uste baino zailagoa izaten da.

Aldi berean, Gramatika batzordetik atera dira, proposamen gisa, Euskaltzaindiak bere osoko bilkuran eztabaidatu eta adostu dituen arau eta gomen-dio asko ere, lan hau azken aldiotan geldituxe baldin bada ere. Baina zalan-tzarik gabe, egin duen lanik handiena gramatikaren inguruko liburu bildumak eskaintzen du. Liburuki hauek *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izena hartu zuten hasieratik (oker ez banaiz, izen hau P. Altunari zor zaio) eta gero, argitaratu izan diren arabera, izen horrek beste zehaztapen batzuk izan ditu, liburuki bakoitzean, liburuaren barnean zer zetorren jakinarazi dutenak. Denetara 5 liburu argitaratu dira, eta seigarrena egun hauetan aterako da, aspaldi eraman baikenuen inprentara. Gramatika batzordeak 2.500 orrialdetik gora argitaratu du arlo honetan. Hauek dira, labur esanik, liburuak eta liburu-erukiak banan-banan.

- 1985, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. Liburu hau, eta geroago argitara emandako liburukiak 1991n argitaratu zen *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I* liburuan bildu ziren. Lehenbiziko liburuki honek beste bi eranskin izan ditu, bata 1987an argitaratua eta bestea 1988an. Euskaltzaindiaren X. Biltzarrak lan hau «aitzin urrats handitzat» eman zuen eta berau hartuko zuela oinarritzat esan zuen aurrerantzean euskal gramatikari begira erabakiak hartzerakoan. «Izen sintagma» zen hemen landu zen gairik garrantzizkoena.
- 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Hemen «Aditza» landu zen.
- 1990, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Diskurtso mailako lotura hitzak landu ziren
- 1994, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak)*. Liburuki honetan koordinazio edo juntadura izan zen gai nagusia.
- 1999, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (mendeko perpausak-1)*. Mendeko perpausak hasi zen lantzen batzordea liburu honetan: aditz jokatuduna duten perpaus osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak eta ondorio perpausak.
- 2005, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-VI (mendeko perpausak-2)*. Liburuki honetan lantzen dira baldintza perpausak, denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak, kontzesio perpausak eta moduzkoak. Betiere aditz jokatua duten perpausak. Liburuki hau, dagoeneko idatzia da, eta inprentara entregatua ere. Inprenta probak, oker ez banaiz, lau aldiz zuzendu ditugu. Aurki egonen da kalean, gure asmoa baita ekainaren 9an aurkeztea.

Gure buruari galdetu beharko genioke, honetara iritsirik, nola baloratzen dugun egin lan hau. Bere garaian R. de Rijk hizkuntzalari holandarrak «Zer dut EGLUren kontra?» (Areatzan, 1998-07-24n irakurria, Gramatika Jardunaldi batzuetan) izeneko txosten bat idatzi zuen, Gramatika batzordeak hala eskaturik. Zer zuen kontra, hori zen jakin nahi genuena. Hasieratik adierazten zuenez, gauza asko zuen alde, nahiz ezezko puntuak bakarrik aipatu zituen, hurrengorako gure lanek hobera joko luketelakoan hola. Guk, egileok, zer esan ez, gauza asko dugu alde. Eta uste dut baditugun horretarako arrazoi argiak. Batzuk bakarrik aipatuko ditut hemen:

- Lan honetan, batez ere hirugarren liburukitik aitzinat, hainbeste gai ukitzen dira, gure ustez oso azaletik aztertuak izan direnak euskal gramatiketan liburuki hauek argitaratzen hasi garen arte. Zenbait kasutan aipatuak ere izan ez direnak ohiko gramatiketan. Modu sistematiko batean, nahiz beharbada ez bere osotasunean, gure gramatikan –izenak berak diogen gisan, lehen urratsa baizik ez baita–, lehenbiziko aldiz ikertu dira orain.
- Lan hau euskalki desberdinetako espezialistek egin dute, lehen esan dudan bezala. Baina egite horrek beste berezitasun bat ere izan du, guztiz aipagarria: lan egiteko prozedura, ororen gainetik talde lana baita, hitz horiek izan dezaketen bere esanahirik itxienean. Nola egin da lana? Behin liburuki bakoitzeko eskema orokorra zehaztu ondoren, eskema hori kide batzuen artean banatzen da, eta bakoitzak bere txostena egiten du. Txosten hori pasarte pasarte lantzen da, esaldiz esaldi eta hitzez hitz. Den-dena irakurtzen baitu egileak bere kideen aitzinean, gero eztabaida sortzeko. Prozedura hau ez da behin bakarrik egiten, zenbait kasutan hiru eta lau aldiz ere egin behar izan da: batzordekideek beren oharrak egiten dituzte, hasierako egileak oharrak hartu eta testuan txertatzen ditu, berriz ere testua berridatzi, kideen aurrean irakurri eta kideak bat etorri izan ez diren arte egileak ez du argi berdea ikusten. Beraz, kapitulu bakoitzak bertsio asko izan du.
- Lan hau egin dutenak espezialistak dira. Gehienak unibertsitateetako irakasleak dira edo gara, lan hau espezialisten lanaren emaitza baita. Gure lan orduak horretan ematen ditugunon emaitza. Hau azpimarratu behar da. Bai baita jendea orainik Euskal Herrian hizkuntza kontuetan orain dela berrogeita hamar urte bezalatsu gaudela pentsatzen duena. Baina hizkuntzalaritzak urrats handiak egin ditu urte hauetan, eta borondatea bakarrik, hoberena izanik ere, ez da ez nahiko ez aski, zerbait serio egin nahi bada hizkuntzaren azterketaren inguruan. Egia da gramatikaren itxura ezin ohikoago dutela liburuki hauek hainbeste puntutan. Baina idatzi den hori idatzi ahal izateko maila jakin bateko eztabaidak gertatu dira gure artean, horretan ez dabilenak nekez ulertuko litzuzkeenak, eta horrek egin du posible gero idatzi den hori modu horretan idatzia izan dadin. Puntu asko utzi ditugu bazterrean, praktikan gure ezjakituria handiagoa baita zerbait egokia esateko izan genezakeen gaitasuna baino.

– Lan hau egiteko inoiz ere erabili izan den informazioa erabili ahal izan dugu. Izan zen garai bat euskalarien artean non «halakok hau esan du» edo «forma hau halako idazleak erabiltzen du» esaten baitzen, gutxik genekielara hori hala zen edo ez, behin baino gehiagotan aipamenak ere buruz egiten baitziren, liburuko orrialdea ahazturik. Gure kasuan ez: batez ere hirugarren liburukitik aitzinat informazio handia izan dugu, behar bezala informatizatua *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren corpusak eskaini diguna. Dagoeneko, kontua ez da «halakok hau esaten du», baizik «idazleek hau hola erabili dute». Hori jauzi ikaragarria izan da. Oraingo honetan ez gabiltza usteka, baizik informazio fidagarriarekin. Informazio hori sarean aurkitzen ahal diren beste iturri baliagarri batzuekin osatu dugu.

Hala ere, nahiz eman ditudan arrazoi hauek aski pisuzkoak diren, nire usutan, ez da inolako zalantzarik lan guztiak hobetu daitezkeela. Gurea ere. Eta horretarako, besteak beste, elkartu gara hemen. Gure buruari egin behar diogun galdera da, bada, nola hobetzen ahal den orain arte egindako lana, gramatika idaztea eta euskararen egiturak erakutsian uztea baita Euskaltzaindiaren zereginetako bat Akademia sortu zenetik beretik. Ez gara, gainera, ez bakarrak ez lehenbizikoak holako lanetan sartzen garenak. Mundua ez da atzo goizean asmatu, eta munduan diren gauzak ere ez dira bart gauekoak: hizkuntza anitzeko hizkuntzalariek idatzi dituzte eta idazten ari dira haien gramatikak. Gure kasuan bada aipatu behar den beste arrazoi bat ere: *EGLU* lan-tzen hasi ginenetik argi genuen behin dena idatzi ondoren, gainetik behera hartu behar genuela berriz ere lan hura, eta beste modu batera moldatu, lan egiteak eta lana burutzeak berak emango ligukeen ikuspuntu zabalagoaz baliatuz.

## **NOLAKO GRAMATIKAK EGIN DAITEZKEEN**

Esan bezala, hizkuntzek beren gramatikak dituzte. Eta aski desberdinak dira, gainera, elkarren artean. Gramatika batzuen helburua pedagogikoa da: ez dira espezialistentzat eginak, baizik hizkuntza ikasi nahi dutenentzat, eskola edo institutuetako ikasleentzat, kontsulta bat egin nahi dutenentzat, eta abar. Gramatika hauek, arruntean, ez dute ekartzen, hizkuntzaren ikerketaren aldetik, deus berririk eta egileek egin nahi dutena izaten da lehendik espezialistek bazekitena beste modu errazago batean antolatu. Holakoak ere badira euskararen kasuan.

Beste gramatika batzuen helburua sintaxi mailakoa izaten da, teorikoa goa. Hizkuntzalariak aspaldi ohartu ziren sintaxia dela, ororen gainetik, hizkuntzaren ezaugarri funtsezkoena, eta sintaxi egiturak ematen duela gizakiok ditugun gaitasun unibertsal batzuen berri. Hori da hizkuntzalari askok, neurologoekin, psikologoekin, informatikariekin eta biologoekin batera defenditzen

дутена, eta horretarako hizkuntza askotako adibideez baliatzen dira. Azkene-ko urteetan sintaxi lanek iraultza osoa ekarri dute hizkuntza mundura, eta han- hemenka espezialista anitz ari da lan horretan. Holako gauzak, neurri apalago batean, egin izan dira euskal hizkuntzalaritzan. Helburua, hizkuntza jakin bat aztertzea baino gehiago, gure kasuan, euskara aztertzea baino gehiago esan nahi dut, gizakiak duen hizkuntzaren gaitasun harrigarri hori aztertzea da, hizkuntzaren gaitasuna hartzen baita gizakiaren ezaugarri funtsezkotzat. Bi maila hauek, ezinbestean, arras loturik daude, jakina, elkarren artean. Euskal- tzaindia urrun dago mundu horretatik, eta Euskal herrian arlo honetan lanean egon daitezkeen lagun gutxi horiek lotura ahulak dituzte gure erakundearekin, haien harremanak batez ere nazioartekoak baitira.

Badira beste gramatika mota asko: historikoak, batez ere hizkuntzaren historian oinarritzen direnak; arloko gramatikak, hizkuntzaren parte bat baka- rrik azertzen dutenak; arauemaileak, batez ere zer den egokia eta zer ez, zer den zuzena eta zer okerra azpimarratzen dutenak, eta abar.

\* \* \*

*EGLU* zer den zehaztu nahi badugu, gramatika deskriptiboa dela esango genuke. Gramatika deskriptiboek egitura nagusien ezaugarriak azertzen dituz- te, eta egitura horiek osatzen dituzten hitzen ezaugarriak: hitz motak, egituren erregulartasunak, salbuespenak, eta abar. Gramatika deskriptiboak gramatika kategorien sailkapen eta haien arteko erlazioen arauen berri ematen du, barne- ko egiturak zein diren erakusten du, eta hitz kateetan gertatzen diren harreman morfologiko, sintaktiko edo semantikoak azertzen ditu. Hori dela eta, lege oro- kor horien berri ematen duten datu adierazgarrienak uzten ditu erakutsian. Ba- tzuetan, gramatika deskriptiboak sinkronikoak direla esan ohi da, nahiz hau ez- tabaidagai izan daitekeen. Ez da esan beharrik, gramatika mota guztiak, direla deskriptiboak, historikoak edo teorikoak, elkarren osagarri direla.

Egia da, zernahi gizaz, gramatika guztiak direla deskriptiboak, modu ba- tean edo bestean. Baina deskriptiboak izateaz gain, batzuek izen hori hartzen dute, eta sail horretan kokatzen ditugu zuzenean. Hori da *EGLU*-ren kasua. Kontua da, ordea, non jartzen den deskripzio maila hori, deskripzioak ez bai- tira inoiz ere neutroak: ikusten dugun guztia azterketa baten ondorioa da, ez da aurrean dugunaren deskripzio neutroa, ez baita deskripzio neutrorik mun- duan. Baina deskriptiboak direla diogunean, esan nahi duguna da gramatika batzuen helburua «axaletik» ikusten denaren berri ematea dela, eta horretara- ko onartzen direla gehienentzat balio dituzten gutxieneko paradigma deskrip- tibo orokor batzuk. Gure kasuan, konparazione, izen sintagma edo aditz sin- tagmaren existentzia, deklinabideko kasuak, eta abar. Jakina, anitzetan gerta daiteke, eta hala gertatzen da *EGLU*-ren kasuan ere, delako gramatika batean zalantzan jarri gabeko paradigmak ageri direnean, paradigma horiek gramati- kak idazteko tradizio handiagoa duten hizkuntzetatik hartzen ditugula, kopiatu egiten ditugula, konturatu gabe beharbada ez direla egokienak beste hiz-

kuntza baten deskripzioa egiteko. Euskararen kasuan gure inguruko gramatikez baliatu gara, latinezkoetatik hasita. Azkueren lanak, Lafitterrenak eta *EGLU* bera ere, tradizio horren zordun dira. Agian, gure buruari galdetu beharko diogu paradigma horiek diren egokienak euskararen berezitasunak deskribatzeko.

Aitzineko urteetan gertatu denarekin konparaturik, beste fenomeno bat gertatzen ari zaigu euskaltzaleen munduan, eta hemen aipatu nahi nuke: orain dela urte batzuk, euskaraz argitaratzen zen guztia irakurtzen zen, eta gramatikek ere sekulako arrakasta izaten zuten. Jendeak erosten zituen, eta irakurri, edo irakurtzen zuela esan. Lehenbiziko *EGLU* atera zenean ere hori gertatu zen, eta jendeak berehala erosi zuen. Baina ondokoekin, batez ere laugarren liburutik aitzinat, ez da hori gertatu, eta ez dira hain ongi saldu. Zergatik? Bi arrazoi daude, nire ustez: batetik, jendeak aukera handiagoa du orain euskaraz irakurtzeko, eta bestetik, gramatika gaiak joriak eta zailak dira. Jendeak ez du horren beharrik sentitzen. Hau ez da euskararen kasua bakarrik, hizkuntza gehienetan gertatzen da. *Orotariko Euskal Hiztegia* kontsulta liburua da, eta *EGLU* ere hori da: behar denean kontsultatzen den zerbait. Segur naiz **EGO** ateratzen denean oso ongi salduko dela. Hori gertatuko da lehenbiziko argitalpenarekin, lan osoa batera aterako baita, liburu batean edo bitan edo behar direnetan, baina gero hortxe bukatuko da kontua, pentsatzen dut. Eta ondoren, kontsulta liburua izanen da ororen gainetik. Eta *EGO txikia* ere pentsatzen dut batere arazorik gabe salduko dela, Euskaltzaindiaren marka baldin badarama.

## NOLAKO GRAMATIKA EGIN NAHI DUGUN

Eta orain, aurkezten ari naizen **EGO** proiektua-dela eta, honetaz guztiaz pentsatu beharko da, zeren, behin *EGLU* osoa kalean dagoela, nola nahi du Euskaltzaindiak segitu lanean? Zer egin nahi du? Zeren, adibidez, elkarren ondoan jarriko bagenitu *EGLU*, Rudolf de Rijkek idatzi baina argitaratu gabe dagoen gramatika mardula, edo Jose Ignacio Hualdek eta Jon Ortiz de Urbinak atera duten askoren arteko *A Grammar of Basque* izeneko liburu lodia, berehala konturatu gara hiru eredu desberdin segitu direla hor.

Segur aski ere, tarteko zerbait egin beharko du Euskaltzaindiak: batetik, *EGLU*-n egindakoa aztertu beharko da; zuzendu, zuzendu behar dena; osatu, osatu behar dena, eta kendu, kendu behar dena. Beharbada, orain arte erabili ditugun paradigmak ere zalantzan jarri beharko dira, hori egitea egokia dela ikusten baldin badugu.

Hasiera batean Gramatika batzordeak uste zuen behin zazpi liburukiak kalean paratu ondoren egokiena izango litzatekeela haien laburpen zabal bat egitea, han gerta litezkeen kontraesanak baztertu eta koherentzia osoko lan berria idaztea. Baina hau ez dut hain argi ikusten, lehenik ongi definitu beharko baitugu zer egin nahi dugun.

Har ditzagun, esate baterako, hiru gramatika hauek: oraintxe aipatu dudan Hualde eta Ortiz de Urbinaren Euskal Gramatika, ingelesez idatzia; Real Academia Española-k atera duen Ignacio Bosque eta Violeta del Monte gramatikarien *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, eta katalanez atera den *Gramàtica del català contemporani*, Maria-Rosa Lloret, Joan Mascaró eta Manuel Pérez Saldanya-k idatzia. Hiru gramatika hauek badituzte zenbait puntu komun elkarren artean.

Hasteko, *EGLU*-rekin ere gertatzen da hau, egile askorenak dira: ingelesez idatzitako euskal gramatika hori 9 lagunen artean atera dute, haietako bi ageri badira ere zuzendari eta arduradun gisa; gaztelaniazkoa 73 egileren lanari zor zaio, ardura osoa bi lagunek hartu badute ere; katalanari buruzko gramatikak 4 zuzendari eta laguntzaile bat izan ditu, baina 58 lagunen artean idatzi dituzte kapituluak. *EGLU*-n ere, azken liburukia hartzen badugu, 20 lagun ageri gara batzordekide gisa, eta horien artean 9 gara txostengile. Bada, hala ere, beste gramatikekin konparatuta, desberdintasun handi bat: gramatika haietan kapitulu bakoitzak egilearen sinadura darama. Hau da, talde lana izanik ere, eta lan osoak bere arduradunak izanik, kapitulu bakoitzak bere jabea du. Horrek baditu bere alde on eta txarrak, agerian uzten baitu norberaren erantzukizuna, baina, aldi berean, galduago bezala ageri da talde lana.

Gure asmoa zen, hasiera batean, zerbait laburragoa egitea, hau da, denetara, azken liburukia (*EGLU* VII) barne, izan daitezkeen 3.000 orrialde horiek lan laburrago batean biltzea. Baina aipatzen ditugun beste gramatika horiek ikusten baditugu, euskarazkoa da txikiena. Hala ere, Hualderen eta Ortiz de Urbinaren lanak 950 orrialde baditu, gure *EGLU*-ko orrialdeak baino hobeki aprobetxatuak. Gurean, gainera, paradigmek hainbeste orrialde hartzen dituzte. Espainolaren gramatikak 5.350 orrialde ditu, letra txikiagoan emanak. Katalanak, azkenekoz, 3.500. Beraz, hauek lan zabalak dira. Eta, horrenbestez, badirudi EGOK ere zabala beharko duela izan.

Antzekotasunak eta desberdintasunak ez dira horretara mugatzen. Gaztelaniaren gramatikak eta *EGLU*-k, funtsean, aski antzeko gaiak ukitzen dituzte, nahiz gaztelaniakoak baduen karga teoriko handiagoa, morfologiaren eta sintaxiaren arteko harremanak aztertzen direnean, edo morfologiaren eta fonologiaren artekoak eztabaidatzen direnean. Gaztelaniaz, bestetik, eratorpena aztertzen da, gure gramatikak ezer gutxi aipatzen duena (jakina denez, hau LEF batzordeak lantzen du. Badirudi han esaten diren gauzak gure gramatikari barneratu beharko ditugula). Azkenik, gaiak xehetasun handiagoarekin aztertu dira, duda gabe, gaztelaniaz. Izenaren inguruko gorabeherak aipa daitezke, adibidez.

Gure gramatika katalanarekin erkatuz gero, desberdintasunak handiagoak dira: ez da bakarrik xehetasun kontua, eta teoriari dagokiona. Hemen ere, nahiz karga teoriko handiagoa atzeman daitekeen (ikus, esate baterako, kuantifikazioaren eta ezeztapenaren inguruko kontuak, edo elipsiari dagokiona), esan be-

har da lehenbiziko liburukiaren erdia fonetika eta fonologiako kontuak aztertzeko erabiltzen dela. Hualderen eta Ortiz de Urbinaren gramatikak ere orrialde asko eskaintzen dizkio fonetika-fonologiari, eta sarrera batean datu soziologikoak ere ematen ditu euskararen ingurukoak, euskalkiei buruzkoak, eta abar.

Gramatikak nola egin daitezkeen ikusteko, badira beste eredu batzuk ere. Ingeleseztan, konparazionez, alde batera uzten baditugu teoriari estu-estu loturik dauden gramatikak, batez ere sintaxia hartzen dutenak aztergai, Quirk, Greenbaum eta Svartvik-en *A Grammar of Contemporary English* (Longman, 1972), eta Declerck-en *a Comprehensive Descriptive Grammar of English* (Kaityakusha, Tokyo, 1991) ikus daitezke. Bigarrena egon daiteke hurbilago guk egin nahi izan dugunetik. Lehenbizikoak ingeles dialektoak aztertzen ditu, eta fonetikari ere bere tokia ematen dio. Gainera, pasarte osoak ditu sintaxi teoretik hurbilago daudenak eta beste ohar asko argigarriak direnak hizkuntzaren inguruan: ingelesaren «lingua franca»-ko izaera, edo nazioartean duen pisuari buruzkoak, adibidez. Badira beste gramatika batzuk ere, baina uste dut hona ekarritako adibide hauekin aski dela oraingoz.

Zer dela eta, aipatzen ditut hemen eta orain gramatika hauek? *EGO* bezalako proiektu bat bultzatu nahi bada, ezin dugu holakorik egin gure inguruan zer dagoen kontuan izan gabe. Eta eman ditugun adibideak kontuan izanik, berehala konturatzen gara *EGO* eta *EGLU* proiektuak elkarren artean erkatzean bi gauza desberdin egin behar direla: batetik, *EGLU*-n esandakoa birmoldatu, kontraesanak kendu, terminologia finkatu, adibideak gaurkotu, eta abar, eta, bestetik, *EGLU* osatu. *EGLU* osatzeko bi bide erabili behar dira: han ukitutako gai batzuetan sakondu behar da. Ez da dudarik Gramatika batzordeak ere material desberdinak erabiltzeko aukera izan duela hasieran eta amaieran, hasieran ez baikenuen inolako corpus informatikorik. Horrek, noski, tratamendu desberdina emanarazi die gai batzuei eta besteei. Horra zergatik sakondu behar diren gai batzuk, batez ere lehenbiziko liburuei dagozkienak. Bestetik, beste gai batzuk osatu beharko direla dirudi, kontuan hartzen baditugu orain arte egin ditugun oharak.

Zer egin euskarari buruzko datu soziologikoekin, euskalkiekin, gaur egun batasuna dela-eta, sortu zaizkigun hiztunen belaunaldi berrieekin? Zer egin fonetika-fonologia mailako gaiekin, hizkera doinuarekin, eta abar? Holako gaiak sartu behar dira edo ez? Zenbateraino osatu behar dira lehendik sakontasun aski izan ez duten gaiak? Teoriaren inguruan zerbait esan behar da? Zer egin *EGLU*-n ageri diren adibide horiekin guztiekin, ez baitaude batuan eta batzuetan nekez baitabil irakurlean horiek irakurri nahi dituenen? Aitortu behar da beste hizkuntzei buruzko gramatiketan ez dela arruntean holako adibiderik aurkitzen.

Baina ez dira hor bukatzen galderak: neurri batean gramatika arau emalea nahi dugu? Bildu behar ditu gramatika honek Euskaltzaindiak eman dituen



arau nagusiak? Zenbateraino? Bildu behar dira hemen Gramatika batzordeak behin eta berriz, *Jagonet* dela eta, ematen dituen erantzunak? Kontuan izan behar dugu gramatika hau kontsulta liburua izango dela, ororen gainetik, irakasleek-eta zalantzak dituztenean gauzak behatzeko toki segurua edo, gutxie-nez, segurua.

Horiek guztiak galderak dira, oraingoz erantzunik gabeko galderak. Hala ere, horri guztiari ekin nahi dio *EGO* proiektuak. Beraz, nolabait ere laburtu nahi baldin badugu honaino esandakoa, esan dezagun *EGO* proiektuak (bide batez, izena bera ere aldatuko nuke, ez *Euskal Gramatika Orotarikoa* baizik *Euskal Gramatika Orokorra*), *EGO* proiektuak, diogu, helburu bikoitza du: batetik, *EGLU* bildu eta birformulatu, eta, bestetik, *EGLU* osatu, terminologia gaurkotuz eta batuz, gai zerrendak osatuz, eta abar.

Baina *EGO*rekin batera kontuan hartu nahi dugu beste gauza bat ere. Gramatika batzordeak orain dela hainbeste urte atera zuen *Euskal Gramatika Laburra* izeneko liburua, perpaus bakunari dagokiona. Batzordeak uste du berak egin behar duela *EGO*ren laburpen fidagarria, besteren eskuetan utzi gabe, besteak beste, beti izan baitu inpresioa batzuetan kanpoko jendeak aprobetxatzen duela batzordekideek aurretik egindako lana. Hori egiteko ere asmoa du, *EGO*-rekin batera.

*EGO* proiektua garatzen berehala has bagaitezke ere, ezin dugu ahaztu hurrengo hilabeteetan *EGLU* bukatu behar dela. Jadanik azkeneko liburukia- ren eskema egina da eta lehenbiziko lanak eztabaidatzen hasiak gara. Beraz, esan behar da hiru gauza batera ditugula mahai gainean, hiru alderdi dituela gure egitasmoak: *EGLU VII*, *EGO* eta *EGO txikia*.

## LANA EGITEKO BALIABIDEAK

Zernahi gisaz, proiektu hau aurrera ateratzeko ez du Gramatika batzordeak gehiegi eskatzen. Batetik, Hezkuntza sailak eta EHUK eskaintzen duen laguntzari esker, batzordekide bat, orain hitz egiten ari dena, lan horretan arituko da, nahiz EHUKo Euskara Institutuaren inguruko kontu batzuk ere bultzatu beharko dituen aldi berean. Horretaz gain, bere garaian aurkeztu txostena kontuan harturik, teknikari bat-edo beharko litzateke, batez ere egin behar diren lan automatiko guztiak aurrera atera ahal izateko.

Orain arte erabili dugun prozedura ez da, hala ere, sobera aldatuko, lanak, azken batean, batzordeak berak eztabaidatu behar baititu, eta ezin baita inola ere lagun baten ardura izan. Edo eredu hau aukeratzen da, edo beste gramatik-ek egin dutena, baina orduan jende asko kontratatu beharko litzateke, gauzak hobeki egingo diren segurtasunik izan gabe gainera. Gure ustez, hala ere, komenigarria litzateke parte hartzea eskatu duen Beatriz Fernandez irakaslea lehenbailehen sartzera taldean. Batzordeak ezinbestekoa du holako jendea.

Batzordeak orain dela hilabete batzuk aurkeztu zion proiektua Euskaltzaindiari, eta proiektu horrek bere horretan dirau. Hemen jartzen ditugu xehetasunak, baina laburtuak, txosten osoa ez errepikatzeagatik, urterik urte. Bi hitzetan esateko, 2007an aterako litzateke *EGLU-VII*, eta 2012an *EGO* eta *EGO txikia*.

2005

*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII)*. Eskema orokorra eztabaidatu eta lehen kapituluaren lehenbiziko idazketa

*EGO*: Eskema nagusia eztabaidatu, metodologia zehaztu eta lana zedarritu

2006

*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII)*. Kapituluaren bigarren idazketa.

*EGO*: aztertutako gai berriak lantzeko lehenbiziko lanen idazketa

**2007**

*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII)* Hirugarren idazketa egin eta **argitaratzeko entregatu**

*EGO*: Lan berriak eztabaidatu eta erabakiak hartu. Aurretik landutako gaiak osatu

2008

*EGO*: Adibide guztiak aztertzen hasi. Estilo kontuak eztabaidatu

*EGO txikia*: Lokailuei eta juntadurari dagozkion gaiak idatzi

2009

*EGO*: Perpaus bakuna berriatziaren lehenbiziko bertsioa eztabaidatu. Ikusi nola osa daitekeen

*EGO txikia*: Menderakuntza idatzi. Lokailuak eta juntadura eztabaidatu

2010

*EGO*: Lan guztiaren lehenbiziko erdia eztabaidatu oso-osorik. Euskaltzaindiari eskatu behar zaizkion arau berriak eskatu.

*EGO txikia*: Perpaus bakunari dagokiona idatzi

2011

*EGO*: Lan guztiaren bigarren atala idatzi eta eztabaidatu. Euskaltzaindiari eskatu behar zaizkion arau berriak eskatu

*EGO txikia*: Lanaren bertsio osoa lehenbiziko aldiz eztabaidatu

**2012**

***EGO*: Osorik entregatu**

***EGO txikia*: Osorik entregatu**

Hau da Gramatika batzordeak aurkezten duen lan egitasmoa, kontuan izanik, Euskaltzaindia sortu zenetik izan dela Akademia honen helburu nagusia Gramatika lantzea.